



## HERRI BATZARRA ALEGIAN 2022ko otsailaren 26an, larunbata, 18:30etan

Itsasoar guztioi, adeitasunez,

**2022ko otsailaren 26an Alegiako Zelai-ondo Elkartean burututako Herri Batzarraren akta doakizue segidan:**

### 1.- 2021eko azaroko batzarraz geroztik emandako pausoak

- Co-working: 3 herritar ekintzaile ari dira lanean: arkitektoa, diseinatzailea eta itzultzailea. Martxoan irekiko da deialdi ofiziala ekintzaile berriei aukera zabaltzeko
- Mandubizelaia difusio eguna: (martxoaren 27an): orain dela 6000 urteko historia ezagutarazteko jarri diren panelak, QR kodeak (irudi birtualak), eskuorriak eta Web orriko informazioa herritarren eskura jarriko da.
- San Lorentzoko lotura berdea Ezkiorekin: Aldundiak berak finantzatu eta exekutatu beharreko ekimen hau abendurako amaituta egotea espero bazen ere, datorren asteetan bukatuta egongo dela agindu digute.
- Luiziek eragindako kalteak bide publikoetan: Negu honetan euriteek sortutako luizien ondorioei aurre egiteko, Aldundiak ez du diru partida berezirik atera, eta landa bideen konponketarako ere diru-laguntzak iazkoak baino zerbait murrizagoak dira. Halere, baserri bideak konpontzeko 9000 eurotako laguntza espero dugu, eta gainontzekoa Udalaren inbertsioetarako kapitulutik egingo da (epe motzean Itsusturritik Mendeun aldera doan bideko eskoilera egingo da).
- Argiterian led-ak jartzeko egitasmoa (DUS 5000, auditoritza energetikoa): Europatik datorren DUS 5000 diru-laguntzara aurkeztu da argiteria publikoan (Alegi, Itsaso, Zozabarro) Led-ak jartzeko proiektua. Egin beharreko inbertsioa 35.000€tako, BEZ barne. Hona aurkeztu ahal izateko Ezkio-Itsaso mailako auditoritza energetikoa egin da.

### 2.- 2022ko otsailaren 17an izandako Batzar Nagusietako agerraldia

Agerraldiaren gidoia aipatu da (*agerraldia ikusgai beheko loturan*):

- Francoren dekretutik hasi (1964) eta 2020ko Auzitegi Gorenaren aurkako sententzira arte egindako ibilbidea: 1995ean Ezkio-Itsasoko udalak egindako eskaria, 2013an hasita parte-hartze prozesua, aldeko txosten juridikoa, bideragarritasun ekonomikoa, kontsulta, Itsaso udalerrri izaera berreskuratzea (2016), Batzorde Kudeatzailearen eraketa, Madrilen erregistroa ukatzea, Euskadiko Auzitegi Nagusiaren aldeko sententzia (2017) eta 2020ko Auzitegi Gorenaren aurkako sententzia
- Itsasoko Udal Administrazioaren ibilbidea eta balorazioa (2017-2021 arte gauzatutakoa): herritarrei zerbitzuak, parte-hartzea, komunikazioa eta gardentasuna, inbertsioak
- Egiten den eskaera:

Eta hauxe Ezkio-Itsasoko Udalbatzak 2021 ekainaren 9an aho batez onartu, eta proposatutako aldaketa:

*“herritarren iritzia kontutan izan gabe hirurogeiko hamarkadan elkartu zituzten udalerriek berriro udalerrri independente gisa bereizi edo udalaz azpiko toki erakunde gisa eratu nahi badute, ez zaie exijituko Foru Arau honetan aurreikusitako biztanle kopuruaren baldintza betetzea”.*

<http://jggipuzkoa.seneca.tv/watch?id=M2M5M2RjMjUtYTIkZS00NmZkLWI3YTUtYWUzNGU2ZDNkY2Y5>

### 3.- Alegiko dendaren proiektua:

- **Proiektuaren aurkezpena Miriam Otamendi arkitektoaren eskutik**

Teknikoki birziklagunea denda bihurtzeko proposamena azaldu da, eta zaborrak jartzeko toki posibleak zein diren, Sasietako ordezkariekin izandako bileraren arabera.

Dendaren lanketarekin jarraituko da martxoaren 26an



### 4.- 2022ko aurrekontuak eta inbertsioetarako proposamenak (diru-laguntza berriak)

Itsasoko 2022ko aurrekontu korrontea 262.619,41€takoa da. Aurtengoan aurreko urtekoarekiko aurrekontua igo da, Aldundiak ematen duen Foru Fondoak hazi delako errekaudazio igoeragatik.

Hortaz aparte 98.475,27€ lortu dira edo aurreikusten dira lortzea 2022an diru-laguntzatan inbertsioetarako (64.500€ lortuta Next funtsetatik dendarako, eta aurreikusita landa bideen konponketarako, Konpostera berrietarako eta auzoalkatetza partaidetza prozesurako diru-laguntzak lortzea).

Eta azkenik urteko aurrekontutik beste 21.500€ geratzen dira inbertsioetarako eta horiekin Hilerriko Kolunbario berria eta LED argiterian inbertituko da.

### 5.- Kultur agenda

Datozen hilabeteetarako antolatu ditugun kultur ekimenak hauek dira. Hilabete bakoitzarentzat berriazko jakinarazpena bidaliko da.

- M8: zinema martxoaren 6an eta martxoaren 8an bazkaria Ostatuan
- Zuhaitz eguna, martxoaren 20an: San Lorentzo inguruan egingo dira landaketak
- Dendaren ikuspegiaren lanketarekin hasi, martxoaren 26an
- Mandubizelaia trikuharriaren difusioa, martxoaren 27an
- Auzolana, apirilaren 2an
- Korrika, apirilaren 8an
- Irakurle taldearen tertulia apirilaren 19an
- Bihotz-birika-bizkortze formazio tailerra apirilaren 26 eta 28an
- Taichik, helduen ariketa sozio-emozionalak... jarraitzen dute

### 6.- Norberak lekarkeena

Adeitasunez,

Itsasoko Batzordea

Itsason, 2022eko otsailaren 28a